

Ordizian, **2014ko urtarrilaren 30a** UDALBATZARRAK **Ohiko bilkura** egin du udaletxe honetako bilkura aretoan. Hona hemen bertaratuak:

BERTARATUTAKOAK:

LEHENDAKARIA:

Igor Eguren Izagirre jn.

BERTAN DAUDEN ZINEGOTZIAK:

Belén Maiza Urrestarazu	BILDU taldea
Izaro Intsausti Zinkunegi	BILDU taldea
Juan M ^a .Guereñu Aldasoro	BILDU taldea
Iban Asenjo Garde	BILDU taldea
Edurne Gutierrez Jauregui	BILDU taldea
Imanol Iturrioz Lauzirika	BILDU taldea
Jose Miguel Santamaría Ezeiza	PNV taldea
Judith Otegi López de Murillas	PNV taldea
Arantzazu Garin Garmendia	PNV taldea
Jose Ignacio Iturrioz Gotor	PNV taldea
Bittor Iñaki Bolinaza Alzelai	PNV taldea
Iñaki Dubreuil Churruca	PSE-EE(PSOE) taldea

IDAZKARIA:

Martin Iparragirre Mujika jn.

KONTUHARTZAILEA:

Jose Luis Aranburu Otegi jn.

ITZULTZAILEA:

Izaskun Zubitur Iñarra and.

BERTARATUAK



BERTARATZEAK ETA IRTEERAK

AZTERTUTAKO GAIAK

EGUNEKO GAI-ZERRENDAKO GAIAK:

- 1.- 2013ko abenduak 18ko ohiko Osoko Bilkurako akta onartzea.
- 2.- Haurdunaldia eteteko Lege proiektuari buruz PSE-EE (PSOE)k aurkeztutako mozioa.
- 3.- BILDU taldeak aurkeztutako mozioa “Emakumeen autonomiaren eta erabakitzeko eskubidearen defentsan” leloa duena (haurdunaldia eteteko Lege proiektuari buruzkoa).
- 4.- EAJ- PNV taldeak aurkeztutako mozioa “Haurdunaldia borondatez eteteari buruzko legearen aldarazpena” leloa duena.
- 5.- Kreditu Transferentzia espedientea.
- 6.- Udal interesako Elkarteen Erregistroaren araudia aldatzeko proposamena.
- 7.- Kooperaziorako proiektua garatzeko gobernuz kanpoko erakunde bati diru laguntza ematea 2013 ekitaldiari dagokiona.

PRESAZKO BIDETIK SARTUTAKO GAIAK:

GORABEHERAK

GALDE-ESKEAK

.-Emergentzi planean barne, jasotzeko zenbait iradokizun.

ORDUTEGIA:

HASIERA: 19:00 etan

AMAIERA: 19:25etan



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren lehenengo puntuaren berri eman du:

1.- 2013ko abenduaren 18ko ohiko Osoko Bilkurako akta onartzea.

Proposamena

2013ko abenduaren 18ko ohiko Osoko Bilkurako akta onartzea.

proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: soila.

Eztabaida

Batzordeburuak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira:

Maiza andrea:

Adierazi du "2013ko azaroaren 28ko ohiko Osoko Bilkurako akta onartzea" puntuan honako zuzenketa hau egin behar dela: 9.592,50 euroko diru laguntza onartu bazen ere, talde hau desegin dela eta horren arabera proiektua ere bertan behera geratu dela esaten duen lekuan, esan behar du: 9.592,50 euroko diru laguntza onartu bazen ere, Indian dagoen tokiko erakundea banandu egin da eta ezinezkoa zaie proiektua gauzatzea. Bestalde adierazi du euskarazko bertsioan ñabardura batzuk egin behar direla (akats materialak), eta pasatuko dizkiola idazkariari zuzendu beharrekoak.

Bozketa

Eztabaida mahaian amaitu ondoren eta jendeari parte hartzeko aukera emanik, Alkate jaunak aurkeztutako proposamena bozketapean jarri du aipatutako aldaketan egin ondoren.

Bozketa egin ondoren honako hauek izan dira emaitzak:

Aldekoak: 13 (BILDU 7, EAJ 5, PSE-EE (PSOE) 1)

Aurkakoak: 0

Abstentzioak: 0

Beraz Alkate jaunak proposamena onartutzat jo du.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:



- 2.- Haurdunaldia eteteko Lege proiektuari buruz PSE-EE(PSOE)k aurkeztutako mozioa.**
3.- BILDU taldeak aurkeztutako mozioa “Emakumeen autonomiaren eta erabakitze eskubidearen defentsan leloa duena (haurdunaldia eteteko Lege proiektuari buruzkoa).
4.- EAJ-PNV taldeak aurkeztutako mozioa “Haurdunaldia borondatez eteteari buruzko legearen aldarazpena leloa duena.

Aho batez onartu da 3 puntu hauek batera tratatzea, eta mozio bateratua aurkeztea:

Eztabaida

Batzordeburuak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira:

Asenjo jn.

Adierazi du nahiz eta mozio desberdinak izan, puntu batzutan oso berdinak direla, horregatik hiru alderdien artean ikusi dela akordio batera iristeko aukera, hiru mozioen arteko egokitzapena eginez. Hori dena kontuan hartuta ondorioztatzen den mozio bateratuari buruzko xehetasunak aipatu ditu.

Dubreuil jn.

Adierazi du garrantzitsuena dela hiru alderdiek ikuspegi antzekoa dutela Alderdi Popularrak egin nahi duen Legearen erreformari buruz, eta azken finean momentu hau aprobetxatu nahi dela salatzeko aurrera doazela legearen aurreproiektuarekin, eta guztiz atzera pauso bat dela 2012. urtean onartutako Legearen aldaketa planteatzea.

Santamaria jn.

Beraien aldetik berrestea hemen esan dena, gaia delikatua izanik, berdintasunean eta emakumeen eskubidean oinarrituta ezin dutela onartu gai honetan atzera egitea, eta lege honek hori suposatzen duela, eta ez dutela aldatu beharra ikusten 2012. urtean onartutako Lege bat, eta gainera 85. urtean onartutakoa baina atzerakoiago izatea.

Hori dena kontuan hartuta, honako hau da adostutako mozioa:

Proposamena

Osoko Bilkura honek:

- 1. Araudiaren ez ohiko atzerapausua, atzerapen sozial eta idologikoa den proposamena salatzen du, emakumeen askatasunean eta eskubideetan ondorio kaltegarriak ekarriko dituen.**



2. **Ordiziako Udalak Estatuko Gobernuari eskatzen dio Estatuko Gobernuak 2/2010 Lege Organikoa, martysoaren 3koa, sexu eta ugalketa osasunari eta haurdunaldia borondatez eteteari buruzkoa aldarazteko Lege Organikoaren Aurreproiektua erretiratzea.**
3. **Udal honek emakumeen autonomiarekiko eta, zehazki, ugalketarako autonomiarekiko duten eskubidearekiko konpromisoa berresten du. Haurdunaldia eteteko erabakiak emakumeen borondatea izan behar du ardatz eta baldintza nagusi.**
4. **Eusko Jaurlaritzan/Nafarroako Gobernuari eskatzen dio emakumeek haien gorputzarekiko eta ugalketarekiko erabakiak askatasunez hartu eta gauzatu anal izateko lege-babesa, osasun-babesa eta babes soziala berma dezala.**
5. **Udal honek, Haurdunaldiaren Borondatezko Eteteak osasun sistema publikoaren baitan egitearen aldeko hautua egiten du, pertsonai sanitarioaren kontzientzia objezioa arautuz eta aipatutako zentro publikoetan emakumeek Haurdunaldiaren Borondatezko Eteterako duten eskubidea gauzatu ahal izateko beharrezkoak diren talde profesionalak daudela bermatuz.**
6. **Udal hanek, martxoaren 3ko 2/2010 legearen baitan egiten den edozein aldaketa, emakumeentzat oinarhizkoak eta berezkoak diren eskubideak zabaltzera bideratu dadila eskatzen du, emakumeek ama izan ala ez erabakitzeko ahalmena izan dezaten.**
7. **Erreforma honi erantzun bateratu bat emateko mugtmendu feminista eta emakumeen mugimenduak egindako lan itzelari errekonozimendua egiten dio, eta Udal honek bat egiten du eskubide hau babesteko mobilizazioekin.**

Bozketa

Eztabaida mahaian amaitu ondoren eta jendeari parte hartzeko aukera emanik, Alkate jaunak proposamena bozketapean jarri du aipatutako aldaketan egin ondoren.

Bozketa egin ondoren honako hauek izan dira emaitzak:

Aldekoak: 13 (BILDU 7, EAJ 5, PSE-EE (PSOE) 1)

Aurkakoak: 0

Abstentzioak: 0

Beraz Alkate jaunak proposamena onartutzat jo du.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:



5.- Kreditu Transferentzia espedientea

Proposamena

Orain dela gutxi onartutako Aurrekontuko inbertsioak bermoldatzeko beharra ikusi da.

Proposamena 2014-1-22ko Osoko bilkurako Gaien Batzordean aztertu da eta oneritzia eman zaio.

Akordio proposamena

Ondoko kreditu transferentzia onartzea:

2014ko AURREKONTUA KREDITU-TRANSFERENTZIEN .ESPEDIENTEA

KREDITU IGOERA

PARTIDA	IZENA	KOPURUA
KAPITAL ERAGIKETAK		
622.422.12.01	Urdaneta ikastetxeko etxebizitzaren bermoldaketa	31.500,00
623.433.00.01	Igotzen den plataforma	6.000,00
731.452.20.01	Majorira kapital ekarpena (eraikinaren isurbidea)	24.000,00
601.511.00.08	Zine ondoko eskailerak konpontzea	12.600,00
601.511.00.09	Domingo Unanue plazako zuloaren konponketa	26.850,00
		100.950,00

FINANTZIAZIOA KREDITU MURRIZKETA

PARTIDA	IZENA	KOPURUA
KAPITAL ERAGIKETAK		
622.434.12.01	Oianguko baserriaren konponketa	100.950,00
		100.950,00

proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: soila.

Eztabaida

Batzordeburuak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira:



Intsausti andrea:

Adierazi du kreditu transferentzi hau datorrela, azken Udal Osoko Bilkuran Urdaneta kaleko berrurbanizazio gorabeheran gaizki ulertu bat izan zelako, eta horren ondotik inbertsio batzuk onartu zirela eta horien artean Oianguko baserria 200.000,00 euro, eta aurrez hitz egindako beste batzuk kanpoan geratu zirela; hori dena konpontzeko Oianguko inbertsioa erdira jaisten da eta hitz egindako beste inbertsioak sartzen dira; baita argitu nahi izan du aste honetan egindako Ogasun delegazioan konturatu direla Urdaneta etxebizitzaren birmoldaketa sartuta zegoela 2013ko urteko azkeneko Udal Osoko Bilkuran onartutako espedientean, eta inbertsio horren ordeaz azkenean liburutegiko lurzoru inbertsioa jartzea proposatzen dela, Udal Osoko Bilkura honetan aurkezten den proposamenaren arabera.

Santamaria jn.

Adierazi du zalantza bat dutela, beraien usteetan zine ondoko eskailerak konpontzea, eta Domingo Unanue Plazako zuloen konponketa 2013ko azken Udal Osoko Bilkuran onartutako Kreditu Transferentzi espedientean sartuta zeudela.

Kontuhartzaile jn.

Argitu du gai hau esanez 2013ko azken Udal Osoko Bilkurako deialdiarekin batera pasatutako kreditu transferentzi proposamenean jasota bazeuden ere, aldaketa batzuk egin zirela Udal Osoko Bilkuran, eta azkenean onartutako espedientetik kanpo geratu zirela.

Gai hau argitu ondoren, eta aipaturiko aldaketa kontuan hartuta, honela geratzen da espedientea:

Proposamena

Orain dela gutxi onartutako Aurrekontuko inbertsioak bermoldatzeko beharra ikusi da.

Proposamena 2014-1-22ko Osoko bilkurako Gaiaren Batzordean aztertu da eta oneritzia eman zaio.

Akordio proposamena

Ondoko kreditu transferentzia onartzea:

**2014ko AURREKONTUA
KREDITU-TRANSFERENTZIEN .ESPEDIENTEA**

KREDITU IGOERA

**PARTIDA
KAPITAL ERAGIKETAK**

IZENA

KOPURUA



623.433.00.01	Igotzen den plataforma	6.000,00
622.451.10.05	Liburutegiko zorua konpontzea	21.000,00
731.452.20.01	Majorira kapital ekarpena (eraikinaren isurbidea)	24.000,00
601.511.00.08	Zine ondoko eskaierak konpontzea	12.600,00
601.511.00.09	Domingo Unanue plazako zuloaren konponketa	26.850,00
		90.450,00

**FINANTZIAZIOA
KREDITU MURRIZKETA**

PARTIDA	IZENA	KOPURUA
KAPITAL ERAGIKETAK		
622.434.12.01	Oianguko baserriaren konponketa	90.450,00
		90.450,00

Bozketa

Eztabaida mahaian amaitu ondoren eta jendeari parte hartzeko aukera emanik, Alkate jaunak proposamena bozketapean jarri du aipatutako aldaketan egin ondoren.

Bozketa egin ondoren honako hauek izan dira emaitzak:

Aldekoak: 7 (BILDU 7)

Aurkakoak: 0

Abstentzioak: 6 (EAJ 5, PSE-EE (PSOE) 1)

Beraz Alkate jaunak proposamena onartutzat jo du.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

6.- Udal intereseko Elkarteen Erregistroaren araudia aldatzeko proposamena.

Proposamena

Udal intereseko irabazi-asmorik gabeko Elkarteen Erregistroa aldatzea.- 1999ko maiatzaren 18an onartutako Udal intereseko irabazi-asmorik gabeko Elkarteen Erregistroa aldatzeko, Gizarte Ongizate delegazioko proposamenaren berri ematen da.



Toki Entitateen Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2 d) artikulua zehazten denaren arabera, Udalarri dagokio ordenantzak onartzea.

Aipatutako Legearen 49 artikulua zehazten denaren arabera, araudi eta ordenantzak honako prozedura jarraitu beharko dute:

- a) Osoko bilkuraren hasierako onarpena
- b) Jende aurreko informazioa eta interesatuei erreklamazioak eta iradokizunak aurkezteko hogeita hamar eguneko gutxieneko epea ematea.
- c) Epe horretan aurkeztutako erreklamazio eta iradokizunen ebazpena eta osoko bilkuraren behin betiko onarpena.

Erreklamaziorik ego iradokizunik aurkeztuko ez balitz, hasierako erabakia behin betiko bihurtuko da, erabaki berririk hartzeko beharrik izan gabe.

Osoko Bilkurako Gaiaren Batzordearen aldeko irizpenarekin, honakoa onartzea proposatzen da:

AKORDIO PROIEKTUA

1.- Udal intereseko irabazi-asmorik gabeko Elkartee erregistroaren 2. artikulua aldatzeko espedientea hasieraz onartzea, honakoaren arabera:

Honakoa esaten duen tokian:

BIGARRENA: Honako hauek eman dezakete Erregistroan izena:

Eusko Jaurlaritzako Justizia, Ekonomia eta Gizarte Segurantza Saileko Elkarten Erregistroan behar bezala izena emandako irabazi-asmorik gabeko Elkarteak, herrian lankidetzak egiten dituztenak.

Honakoa esan beharko luke:

BIGARRENA: Honako hauek eman dezakete Erregistroan izena:

Eusko Jaurlaritzako Justizia, Ekonomia eta Gizarte Segurantza Saileko Elkarten Erregistroan behar bezala izena emandako irabazi-asmorik gabeko Elkarteak, herrian lankidetzak egiten dituztenak eta hauetako puntu bat behintzat ematea beharrezkoa da.

- Herrian bertan kokatutako ekintzaren bat urtean zehar burutzea
- Ongizate sailarekin kasuen deribazio, jarraipena edo /eta koordinazioa gauzatzea.
- Elkarteko kideek Ordiziako parte hartze guneetan presentzia izatea.



2.- Ordenantza jendaurrera zabaltzea iragarki taulan eta Gipuzkoako aldizkari Ofizialeko iragarki bidez 30 eguneko apean, interesatuei erreklamazioak eta iradokizunak aurkezteko aukera emateko, eta Udalak ebatziko ditu iradokizun hauek.

3.- Erreklamaziorik ez balego, akordio berririk gabe Ordenantzak behin betiko onartutko dira.

proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: soila.

Eztabaida

Batzordeburuak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira:

Maiza andrea:

Adierazi du Ordiziako Udalak 1999tik Udal intereseko Elkartearen Erregistroaren araudia onartuta duela, eta 2. artikuluan xedatzen denaren arabera erroldan izena eman dezaketela "Eusko Jaurlaritzako Justizia, Ekonomia eta Gizarte Segurantzaren Saileko Elkartearen Erregistroan behar bezala izena emandako irabazi-asmorik gabeko Elkarteak, herrian lankidetzak egiten dituztenak"; jarraitu du esanez errolda honetan irabazi-asmorik gabeko elkarteek izena ematen dutela Udalak arlo horretarako zuzendutako diru laguntzak jaso ahal izateko, eta aipatu ditu izena emanda dauden elkarte batzuk: Kattalin, Emakumeen Elkarteak, Nagusilan, eta abar. Azkeneko urteetan konturatu direla, 2013an izan bada ere errepunte handiena egoera ekonomikoak eraginda, erroldan izena emateko eskaera pila bat aurkeztu direla eta adibide bezala giltzurruneko transplante elkartearen eskaera jarri du, eta egia bada ere elkarte horiek gizarte alde egiten dutela lan, hori bezala etor daitezke hamar mila, eta egindako hausnarketaren ondorioz gai honi muga batzuk jartzeko beharra ikusi zen, eta Ongizate Aholku Batzordera pasatu eta handik etorri da 2. artikuluari ñabardura batzuk jartzeko proposamena, gutxienez eskatzea planteatzen diren hiru puntuetatik bat behintzat izatea, eta hori da Udal Osoko Bilkura honetara ekartzen da proposamena.

Bozketa

Eztabaida mahaian amaitu ondoren eta jendeari parte hartzeko aukera emanik, Alkate jaunak proposamena bozketapean jarri du.

Bozketa egin ondoren honako hauek izan dira emaitzak:

Aldekoak: 13 (BILDU 7, EAJ 5, PSE-EE (PSOE) 1)

Aurkakoak: 0

Abstentzioak: 0



Beraz Alkate jaunak proposamena onartutzat jo du.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

7.- Kooperaziorako proiektua garatzeko gobernuz kanpoko erakunde bateri diru laguntza ematea 2013 ekitaldiari dagokiona.

Proposamena

2013ko azaroak 28ko Osoko Bilkurako akordioan, Kooperaziorako proiektuak garatzeko gobernuz kanpoko erakundeei diru laguntzak emateko arautzen duen arautegiarekin baitan, eta 2013 ekitaldiari dagokion deialdia egin ondoren, beste batzuren artean dirulaguntza hau ematea onartu zen:

.- **PHAGMA DRÖLMA.** Mujeres, desarrollo y medio ambiente: las comunidades tibetanas más vulnerables en primer plano (fase II) India
Onartutako dirulaguntza: 9.592,5 euro

.- 2013/12/11an Phagma Drolma erakundeak, jasotako laguntzari uko egiteko idatzia aurkeztu du, izan ere, Indian dagoen tokiko erakundea banandu egin da eta ezinezkoa zaie proiektua gauzatzea.

.- 2013/12/18ko Ongizate Delegaritzan, 9.592,5 €ko kreditu erreserba egitea onartzen da, hau da, Phagma Drolma erakundeari onartutako diru kopuruari dagokiona.

Diru laguntza kopuru hau, ondorengo proiektuari ematea proposatzen da:

CALCUTA ONDOAN. Bulnerabilitate arrisku handiko pertsonentzako harrera integrala eta erreabilitazioa, 24, S.Paraganas eskualdeko nekazari- ingurunean. Calcuta, India.

proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: soila.

Eztabaida

Batzordeburuak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira:

Maiza andrea:

Adierazi du Udal Osoko Bilkurak, 2013ko azaroaren 28ko bileran, gobernu kanpoko erakundeei diru laguntzak emateko arautzen duen arautegiarekin baitan, **PHAGMA DRÖLMA** elkarteari 9.592,50 euroko



diru laguntza onartu bazitzaion ere, 2013-12-11n erakunde horrek, jasotako laguntzari uko egiteko idatzia aurkeztu duela, izan ere, Indian dagoen tokiko erakundea banandu egin da eta ezinezkoa zaie proiektua gauzatzea.

Hori horrela izanda, diru banaketa egiteko txostenetan ezarritako hurrenkera jarraituz, proposatzen da diru hori **CALCULTA ONDOAN** elkarteari ematea, azpimarratuz puntuazioetan eta aurrekontuetan ere oso antzekoak zirela.

Bozketa

Eztabaida mahaian amaitu ondoren eta jendeari parte hartzeko aukera emanik, Alkate jaunak proposamena bozketapean jarri du.

Bozketa egin ondoren honako hauek izan dira emaitzak:

Aldekoak: 13 (BILDU 7, EAJ 5, PSE-EE (PSOE) 1)

Aurkakoak: 0

Abstentzioak: 0

Beraz Alkate jaunak proposamena onartutzat jo du.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

8.- Galde-erreguak

Santamaria jaunak adierazi du 2013ko abenduaren 18ko Udal Osoko Bilkuran onartutako Kreditu transferentzi espedientean Kreditu murrizketa atalean emergentzi plana zegoela ikusi duenean, burura etorri zaiola Bermeon edo Pasaian izandako suteak, eta agian ez legokeela gaizki alde zaharrear, Urdaneta, Maribatzen..... egurrezko egitura duten eraikinen errolda bat egiteaz gain, baita planifikazio bat izatea emergentzi planaren ikuspuntutik.

Alkate jaunak erantzun du nota hartzen duela, nahiz eta pentsatu orain "ITE" delakoaren gaiarekin eta etxebizitza guztien berrikusketaren gaiarekin (50 eta 100 urte baino gehiagokoak), hau ere aurreikusiko dela; berriro dio nota hartzen duela eta edozein kasuan tratatuko dela hirigintza sailean.



Aztergai gehiago ez dagoenez, Lehendakariak bilera amaitutzat eman du, eta honako akta jaso da; hori, nik, behin behineko Idazkariak egiaztatzen dut.

